



ORDEN PRE/165/2017, de 7 de febrero, por la que se dispone la publicación del convenio de colaboración entre la Agencia de Calidad y Prospectiva Universitaria de Aragón (ACPUA) y la Universidad del País Vasco, por el que se formaliza la encomienda de gestión para la evaluación de la investigación de los profesores contratados no permanentes de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

Inscrito en el Registro General de Convenios con el núm. 2017/4/0002 el convenio suscrito, con fecha 2 de diciembre de 2016, por la Consejera de Innovación, Investigación y Universidad del Gobierno de Aragón, como Presidenta del Consejo Rector de ACPUA, y el Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, y de conformidad con lo dispuesto en los artículos 32 de la Ley 1/2011, de 10 de febrero, de Convenios de la Comunidad Autónoma de Aragón y 13 del Decreto 57/2012, de 7 de marzo, del Gobierno de Aragón, por el que se regula el Registro General de Convenios de la Comunidad Autónoma de Aragón, he resuelto:

Ordenar la publicación del citado convenio, que figura como anexo de esta orden, en el "Boletín Oficial de Aragón".

Zaragoza, 7 de febrero de 2017.

**El Consejero de Presidencia,
VICENTE GUILLÉN IZQUIERDO**

LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA ARAGOIKO UNIBERTSITATEETAKO KALITATE ETA PROSPEKTIBA AGENTZIAREN ARTEKOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE KONTRATATU EZ IRAUNKORREN IKERKETA EBALUATZEKO KUDEAKETA GOMENDIOA FORMALIZATZEKO

Zaragozan, 2016ko abenduaren 2an.

BILDU DIRA

Alde batetik, Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU) errektorea (erakundearen IFK Q-4818001-B da), Unibertsitate horren izenean eta ordezkari gisa otsailaren 15eko 17/2011 Dekretu bidez (2011ko otsailaren 24ko EHAA) onartu eta indarrean dauden Estatutuen 178. eta 181. artikuluetan izendatutako eskumenen arabera. Erakundearen egoitza da Sarriena auzoa z/g Leioa, Bizkaia.

Beste aldetik, Pilar Alegria Continente andrea, Aragoiko Unibertsitateetako Kalitate eta Prospektiba Agentziaren (aurrerantzean ACPUA) izenean eta ordezkari gisa; zuzenbide publikoko erakundea ekainaren 14ko 5/2005 Legearen, Aragoiko Unibertsitate Sistema Antolatzeakoaren, bidez sortu zen. Egintza honetan Zuzendaritza Kontseiluaren lehendakari gisa esku hartzen du, adierazitako legearen 87.2.a) artikuluari jarraituz, Aragoiko Gobernuako Berrikuntza, Ikerkuntza eta Unibertsitate Saileko kontseilaria den aldetik, 2015eko uztailaren 5eko Dekretuaren arabera, eta hitzarmena sinatzea Zuzendaritza Batzordeak 2016eko azaroaren 15eko bileran baimendu ondoren, Aragoiko Gobernuaren abenduaren 4ko 239/2006 Dekretu bidez onartutako ACPUAren Estatutuak eta Aragoiko Gobernu Kontseiluak 2016eko azaroaren 30eko bileran emandako baimena betez.

Bi aldeek, ordezkatzan dituzten erakundeen izenean, goiburuan adierazitako hitzarmen hau formalizatzeko behar besteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE

|

ACPUA 5/2005 Legearen, Aragoiko Unibertsitate Sistema Antolatzeakoaren, bidez sortu zen,

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO Y LA AGENCIA DE CALIDAD Y PROSPECTIVA UNIVERSITARIA DE ARAGÓN, POR EL QUE SE FORMALIZA LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN PARA LA EVALUACIÓN DE LA INVESTIGACIÓN DE LOS PROFESORES CONTRATADOS NO PERMANENTES DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

En Zaragoza, a 2 de diciembre de 2016.

REUNIDOS

De una parte, D. Iñaki Goirizelaia Ordorika, Rector Magnífico de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en adelante UPV/EHU (CIF: Q-4818001-B), actuando en nombre y representación de dicha Universidad, conforme a las atribuciones que le confieren los artículos 178 y 181 de sus vigentes Estatutos, aprobados por Decreto 17/2011, de 15 de febrero, (BOPV, de 24 de febrero de 2011). Institución con sede en Leioa, Bizkaia, Barrio Sarriena s/n.

De otra parte, D.^a Pilar Alegria Continente, en nombre y representación de la Agencia de Calidad y Prospectiva Universitaria de Aragón (en adelante ACPUA), entidad de derecho público creada por Ley 5/2005, de 14 de junio, de Ordenación del Sistema Universitario de Aragón. Interviene en su condición de Presidenta del Consejo Rector, con arreglo al artículo 87.2.a) de la citada ley, por ser la Consejera del Departamento de Innovación, Investigación y Universidad, en virtud del Decreto de 5 de julio de 2015, de la Presidencia del Gobierno de Aragón, y una vez aprobada la firma del convenio por el Consejo Rector, en sesión del 15 de noviembre de 2016, de acuerdo con los Estatutos de ACPUA, aprobados por Decreto 239/2006, de 4 de diciembre, del Gobierno de Aragón, y con la autorización, por parte del Consejo de Gobierno de Aragón, en su sesión del 30 de noviembre de 2016.

Ambas partes se reconocen, en la representación que ostentan, capacidad suficiente para formalizar el presente convenio, indicado en el encabezamiento, y de común acuerdo

EXPONEN

|

La ACPUA, creada por la Ley 5/2005, de Universidades de Aragón, es una entidad de

zuzenbide publikoko erakundea da eta nortasun juridikoa eta ondare propioa ditu, eta bere xedeak betetzeko ahalmen osoa. Aipatutako lege-testuaren 85.2 artikuluan ezartzen da Agentziak bere eskumenen esparruan zerbitzuak eman diezazkiekeela beste autonomia-erkidego, unibertsitate eta unibertsitate-ikastegiei edo, oro har, goi-mailako ikastegiei, Espainiakoak izan edo ez, alde zurretik hitzarmen egokia sinatuta. Dagokion hitzarmena Aragoiko Gobernuak baimenduko du eta bertan argi eta garbi zehaztuko dira asumitzen diren eta Agentziari kostu ekonomikorik eragingo ez dioten betebeharrak.

Beraz, Aragoiko Unibertsitate Sistema antolatzeke ekainaren 14ko 5/2005 Legean irakasle-ikertzaileen ikerketa jarduera ebaluatzearen arloan izendatutako funtzioak gauzatu, bere eskumenen esparruan zerbitzuak eman diezazkiekeela beste autonomia erkidego, unibertsitate eta unibertsitate-ikastegiei, alde zurretik hitzarmen egokia sinatuta.

II

Ikerketarako laguntzak emateko urteko deialdietan UPV/EHUK ezartzen du ikertzaile nagusiaren, tesi zuzendariaren edo prestakuntza bidean dauden ikertzaileen zuzendari zientifikoaren lana egiten dutenek Ikerketa Jarduera Ebaluatzeke Batzorde Nazionalak (CNEAI) azken sei urteetan emandako ikerketako seiurteko bat izan behar dutela.

Gainera, adibide moduan beherago aipatzen diren eta ikertzaile kontratatu ez iraunkorrenzat diren ikerketarako laguntzen urteko deialdi batzuetan ezartzen da, alde horretatik, ikerketako seiurtekoaren orde zehazketa izango dutela Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeke eta Egiaztatzeke Agentziak edo kideko beste agentzia batek ikerketa jarduerari buruz egindako ebaluazio baliokidea.

Eskakizun horrek dakar, hala jasotzen duten deialdietan hitzez hitz idatzita dagoen moduan, irakasle kontratatu ez iraunkorren kasuan UPV/EHUK ohiko ebaluazio agentzien ordeko beste batzuk bilatu beharra eta horien bidez ematea irakasle horiei UPV/EHUko deialdietan eskatutako egiaztapena lortzeko aukera.

Derecho público que goza de personalidad jurídica, patrimonio propio y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines. El artículo 85.2 del citado texto legal establece que la Agencia podrá prestar servicios dentro del ámbito de sus competencias a otras Comunidades Autónomas, universidades y centros universitarios o, en general, de educación superior, españoles o no, previa la suscripción del correspondiente convenio, que será autorizado por el Gobierno de Aragón, y en el que se especificarán claramente las obligaciones que se asuman y que no podrán generar un coste económico para la Agencia.

Por consiguiente, en el ejercicio de las funciones que le atribuye la Ley 5/2005, de 14 de junio, de Ordenación del Sistema Universitario de Aragón, en materia de evaluación de la actividad investigadora del personal docente e investigador, puede prestar servicios dentro del ámbito de sus competencias a otras Comunidades Autónomas, universidades y centros universitarios, previa la suscripción del correspondiente convenio.

II

La UPV/EHU establece en sus convocatorias anuales de ayudas a la investigación, que las personas que actúen como IP o como Directores de tesis o como Directores científicos de personal investigador en formación, deben tener reconocido un sexenio de investigación concedido en los últimos seis años por la Comisión Nacional de Evaluación de la Actividad Investigadora (CNEAI).

Adicionalmente, en algunas de las convocatorias anuales de ayudas a la investigación que más abajo se mencionan a título enunciativo, y dirigido para las personas investigadoras contratadas no permanentes, que el requisito del sexenio de investigación podrá ser sustituido por una evaluación equivalente de la actividad investigadora realizada por la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco u otra agencia análoga.

Esa exigencia, tal como aparece redactada textualmente en las convocatorias que así lo recogen, hace necesario que en relación al personal contratado no permanente, la UPV/EHU deba buscar vías alternativas a las de las agencias de evaluación habituales, mediante las cuales brindar la posibilidad de que ese profesorado pueda obtener la acreditación exigida en las convocatorias de la UPV/EHU.

Halaber, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak adierazten du bertako irakasle-ikertzaile kontratatu ez iraunkorren ikerketa jarduera aitortu eta ebaluatzean irakasle-ikertzaile funtzionarioen eta kontratatu iraunkorren ikerketa jarduera ebaluatzeko jarraitzen diren antzerako prozedura eta irizpideak aplikatu behar direla.

III

Testuinguru honetan, kontuan hartu behar da ACPUA 2006tik ari dela ebaluatzen Zaragozako Unibertsitateko irakasle kontratatu ez iraunkorren ikerketa jarduera, erreferentzia gisa Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionalaren jarduketa hartuta.

Esku hartzen duen alde bakoitzak berezko dituen xede eta helburuak betetzeko, goi-mailako hezkuntzaren arloan eskumenak dituzten erakunde publikoak diren aldetik, alde bien interesa da irakasle-ikertzaileen kalitatea hobetzea, horien izaera juridikoa edozein izanda ere. Horrez gain, ACPUA eta UPV/EHU jabetzen dira beren helburuak hobeto lortzeko onuragarriak direla lankidetzeta eta ahaleginak, ekimenak eta baliabideak batzea, eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 15.4 artikulua babesean, alde biek erabaki dute kudeaketa gomendioko hitzarmen hau sinatzea ondoko klausulei jarraituz

KLAUSULAK

LEHENENGOA. HELBURUA

Lankidetzeta hitzarmen honen helburua, hain zuzen ere, horixe da: Euskal Herriko Unibertsitateak ACPUAri arlo teknikoan esku hartzeko egiten dion kudeaketa gomendioa formalizatzea, eta bere eginkizuna izango da UPV/EHUko irakasle kontratatu ez iraunkorren ikerketa jarduera ebaluatzea.

Hona hemen, adibide moduan, UPV/EHUk ikerketarako ematen dituen laguntzen deialdietako batzuk:

- Ikerketa proiektuak egiteko laguntzen urteko deialdia.
- UPV/EHUko ikerketa taldeen

Asimismo, la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea considera que el reconocimiento y la evaluación de la actividad investigadora de su personal docente e investigador contratado no permanente debe realizarse mediante la aplicación de procedimientos y criterios equiparables a los que rigen para la evaluación de la actividad investigadora del personal docente e investigador funcionario y contratado permanente.

III

En este contexto, hay que tener presente que la ACPUA viene desde el año 2006 evaluando la actividad investigadora del profesorado contratado no permanente de la Universidad de Zaragoza, tomando como referencia la actuación de la Comisión Nacional de Evaluación de la Actividad Investigadora.

Por ello, dentro de los fines y objetivos propios de cada una de las partes intervinientes, como instituciones del sector público con competencias en el área de la educación superior, y teniendo un interés común en la mejora de la calidad del personal docente e investigador, cualquiera que sea su naturaleza jurídica, la ACPUA y la UPV/EHU son conscientes de los beneficios de la cooperación y de la suma de esfuerzos, iniciativas y recursos para una mejor consecución de sus objetivos. Por consiguiente, y al amparo del artículo 15.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, acuerdan suscribir el presente convenio de encomienda de gestión que se registrará por las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO

El presente convenio de colaboración tiene precisamente ese objeto: formalizar la encomienda de gestión que la Universidad del País Vasco realiza a ACPUA, para su intervención técnica consistente en la evaluación de la actividad investigadora del profesorado contratado no permanente de la UPV/EHU.

Convocatorias de ayuda a la investigación de la UPV/EHU que se mencionan, a título enunciativo:

- Convocatoria anual de ayudas para la realización de proyectos de investigación.
- Convocatoria anual de ayudas al

- funtzionamendurako laguntzak emateko urteko deialdia.
- UPV/EHUko ikertzaile doktoreen espezializaziorako kontratazioa egiteko deialdia (2016).
 - Deialdiaren xede den jarduerarentzat edo proiektuaren ikertzaile nagusiarentzat baldintza gisa seiurteko bizi bat edo ebaluazio agentzia errekonozitu batek egindako kideko ebaluazio positiboa eskatzen duten bestelako deialdi guztiak.

BIGARRENA. ALDEEN KONPROMISOAK

Unibertsitateari dagokio:

- a) UPV/EHUko irakasle kontratatu ez iraunkorren argitara ematea irakasle horiek, hitzarmen hau aplikatuz, bere ikertzaile lanaren errekonozimendua izateko aukera dutela.
- b) Hala gertatzen denean, egindako balorazioarekin ados ez dauden irakasle kontratatu ez iraunkorrek aurkeztutako alegazioak ACPUAr bidaltzea.
- c) Hitzarmen honen bitartez araututako prozedura irakasle kontratatu ez iraunkorrei azaltzea, zeinen bidez pertsona bakoitza ACPUAre aplikazio telematikoa sartu ahal izango den ebaluazioa eskatzeko, hartarako behar den dokumentazioa aurkeztuta.

ACPUAri dagokio:

- a) Unibertsitatearen esku jartzea bertako irakasle kontratatuen ikerketa jarduera ebaluatzeko erabilitako aplikazio telematikoa.
- b) Eskara bakoitzeko ebaluazio txosten tekniko bat egitea, eta bertan zero eta hamar bitarteko zenbaki baten bidez baloratuko da ebaluatzekoa den lana. Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrean aurkeztu ahal izango diren errekurtsioen txosten teknikoak egitea ere badagokio.
- c) Txosten horiek irakasle kontratatu ez iraunkorren ikerketa jarduera ebaluatzeko ezarrita duen prozeduraren arabera egingo ditu ACPUAK.

funcionamiento de los grupos de investigación en la UPV/EHU.

- Convocatoria de contratación para la especialización de personal investigador doctor en la UPV/EHU 2016.
- Cualesquiera otras convocatorias en las que se exija el requisito de un sexenio vivo, o evaluación positiva equivalente realizada por una agencia de evaluación reconocida para la persona IP del proyecto o acción objeto de la convocatoria.

SEGUNDA.- COMPROMISOS DE LAS PARTES

Corresponde a la Universidad:

- a) Dar publicidad entre el profesorado contratado no permanente de la UPV/EHU, sobre la existencia de la posibilidad de que ese personal, en aplicación de este convenio, pueda obtener el reconocimiento de su actividad investigadora.
- b) Remitir a ACPUA, en su caso, las alegaciones que presenten los profesores y profesoras contratados no permanentes, que no estén de acuerdo con la valoración realizada.
- c) Explicar al profesorado contratado no permanente el procedimiento regulado por el presente convenio, mediante el que cada persona podrá acceder a la aplicación telemática de ACPUA, para solicitar a través de ella la evaluación aportando para ello la documentación que sea necesaria.

Corresponde a ACPUA:

- a) Poner a disposición de la Universidad la aplicación telemática utilizada para la evaluación de la actividad investigadora de su profesorado contratado.
- b) Emitir un informe técnico de evaluación por cada solicitud, que valorará de cero a diez la obra sometida a evaluación, así como la emisión de los informes técnicos de los recursos que pudieran interponerse ante la Universidad del País Vasco.
- c) Dichos informes serán emitidos por ACPUA de acuerdo con el procedimiento que tiene establecido para la evaluación de la actividad investigadora del profesorado contratado no permanente.

HIRUGARRENA. ALDEEN KONPROMISO FINANTZARIOAK

ACPUAK ez du inolako konpromiso finantzariorik hartzen bere gain hitzarmen honi dagokionez, ikerketa jardueraren ebaluazioak, eskatzen zaizkionak, egiteak eragin diezaiokeenaz gainera.

UPV/EHUK ez du inolako konpromiso finantzariorik hartzen bere gain hitzarmen honi dagokionez, ebaluazioen kostua bere ikerketa jarduera ebaluatzeko eskaera egiten duen pertsonak zuzenean hartuko baitu bere gain.

LAUGARRENA. IKERKETA JARDUERA EBALUATZEKO ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

- a) Ikerketa jarduera ebaluatzeko eskaera irakasle kontratatu ez iraunkorren kidegoetako kideek hasi behar dute.
- b) ACPUAren aplikazio telematikoan sartzeko honako esteka erabiliko da:
<https://servicios.aragon.es/emi/>
- c) Eskaeraren grabazioari aplikazioan eskatutako dokumentazioa eta ACPUAren kontuan (jarraian adierazitakoan) 110 euro ordaindu izanaren agiria erantsiko zaizkio:
ES76 2085 0155 45 0330327467
- d) ACPUAK ebaluazioa egingo du eta dagokion txostena eskatzaileari igorriko dio hark erabakitako bidea erabiliz; posta elektronikoko bidez egitea lehenetsiko da.
- e) Eskatzailea ez badago ados jasotako txostenaren edukiarekin, egoki ikusten dituen alegazioak egin ahal izango ditu, eta, hartarako, beste eskaera bat grabatuko du ACPUAren aplikazio telematikoan beste txosten bat egitea nahi duela eskatzeko. Eskaera berriari 110 euro ordaindu izanaren beste agiria bat erantsiko zaio.
- f) Egindako alegazioari dagokion txosten berria jaso ondoren, ezingo da bestelako berrikuspenik planteatu.

TERCERA.- COMPROMISOS FINANCIEROS DE LAS PARTES

La ACPUA no asume ningún compromiso financiero en relación al convenio, distinto al que pueda implicar la realización material de las evaluaciones de la actividad investigadora que se soliciten.

La UPV/EHU no asume ningún compromiso financiero en relación al convenio, ya que el coste de las evaluaciones será asumido directamente por cada persona que solicite la evaluación de su actividad investigadora.

CUARTA.- PROCEDIMIENTO PARA SOLICITAR LA EVALUACIÓN DE LA ACTIVIDAD INVESTIGADORA

- a) La solicitud de evaluación de la actividad investigadora la inician las personas que pertenezcan a colectivos de profesorado contratado no permanente.
- b) Para acceder a la aplicación telemática de la ACPUA se utilizará el enlace siguiente: <https://servicios.aragon.es/emi/>
- c) La grabación de la solicitud irá acompañada de la documentación que se solicite en la aplicación y del correspondiente abonar realizado por importe de 110 euros en la cuenta de la ACPUA que se indica a continuación:
ES76 2085 0155 45 0330327467
- d) La ACPUA realizará la evaluación y remitirá a la persona solicitante el informe correspondiente a través del medio que aquella determine, debiendo ser este preferentemente, el del correo electrónico.
- e) En caso de disconformidad con el contenido del informe recibido, la persona solicitante podrá formular las alegaciones que considere oportunas, grabando para ello una nueva petición en la aplicación telemática de la ACPUA, mediante la que se solicite la emisión de un nuevo informe. Esa nueva solicitud deberá ir acompañada de un nuevo abonar por importe de 110 euros.
- f) Una vez obtenido el nuevo informe correspondiente a la alegación formulada no podrá plantearse ninguna revisión posterior.

BOSGARRENA. JARRAIPIEN BATZORDE MISTOA

1. Hitzarmen honen jarraipen zehatza egiteko lau kidez osatutako Batzorde paritario bat eratuko da. UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak eta ACPUAren zuzendariak izendatuko dituzte erakunde bakoitzaren bi ordezkariak. Idazkari lana organoak berak hautatutako batzordekideak egingo du.

2. Honako hauek izango dira Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

a) Helburuen eta alde bakoitzak bere gain hartutako betebeharren jarraipena egitea eta behar bezala betetzen direla zaintzea.

b) Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen arazoak ebaztea. Adierazitako desadostasunak ez dira ebaluazio prozesuari buruzkoak izango, Unibertsitatea izanik horren ardura duena, baizik eta soil-soilik hitzarmen honekin ezartzen den laguntza teknikoari buruzkoak.

3. Batzordeak ezarriko du bere funtzionamendu-araubidea.

SEIGARRENA. INDARRALDIA

Hitzarmen hau UPV/EHUK argitara ematen duenean sartuko da indarrean, eta UPV/EHUK berak bertako irakasle kontratatu ez iraunkorrek beren ikerketa jardueraren ebaluazioa eskatu ahal izateko ezarritako epeak irauten duen bitartean egongo da indarrean.

Behin UPV/EHUK ezarritako epea amaitu ondoren, amaitutzat emango dira aldeek hitzarmen honen bidez bere gain hartutako konpromisoak.

Aldeak alde zuzenetatik ados jarrita, hitzarmen hau luzatu ahal izango da dagokion eranskina formalizatuta.

QUINTA.- COMISIÓN MIXTA DE SEGUIMIENTO

1. Para el seguimiento concreto del presente se constituye una Comisión paritaria de cuatro miembros. El Vicerrector de Investigación de la UPV/EHU y el Director de la ACPUA designarán cada uno a sus dos representantes. Ejercerá de secretario un miembro de la Comisión elegido por el propio órgano.

2. Las funciones de la Comisión de Seguimiento serán las siguientes:

a) El seguimiento y la buena ejecución de los objetivos y las obligaciones contraídas por cada parte.

b) La resolución de los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse. En ningún caso, se entiende que tales controversias afecten al procedimiento de evaluación, propio de la Universidad, sino exclusivamente a la asistencia técnica que con este convenio se establece.

3. La comisión establecerá su propio régimen de funcionamiento.

SEXTA.- VIGENCIA

La vigencia de este convenio comenzará con la publicidad del mismo por la UPV/EHU y se circunscribirá a la duración del plazo que la propia UPV/EHU establezca, para que su profesorado contratado no permanente, pueda solicitar la acreditación de su actividad investigadora.

Una vez finalizado el plazo establecido por la UPV/EHU, se darán por finalizados a su vez los compromisos adquiridos por las partes en este convenio.

Previo acuerdo expreso entre las partes, se podrá prorrogar el presente convenio mediante la formalización de la correspondiente adenda.

**ZAZPIGARRENA.
TITULARTASUNA**

Lehen aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15.2 artikulua arabera, kudeatzeko gomendioak ez dakar ez eskumeneren titulartasuna ez eskumen horietaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea.

UPV/EHUREN erantzukizuna da hitzarmen honetan formalizatutako kudeaketa gomendioaren xede den jardura materialaren euskarri izango den prozedura argitara ematea, bai hasierakoa bai errekurtsuarena.

ZORTZIGARRENA. BALIOGABETZEA

Hitzarmen hau amaituko da indarraldia betetzen denean edota honako kasu hauetan:

- a) Hitzarmen hau sinatzen duten aldeek elkarren arteko adostasunez hala erabaki badute.
- b) Jarduerekin jarraitzeko eragozpenak egonez gero, edo jardura horiek egiten jarraitzeko beharrik ez badago.
- c) Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

Klausula honen a) paragrafoan adierazitako arrazoiarengatik hitzarmena bertan behera geratuko balitz, akordio bat lortu beharko da jadanik eginda dauden ebaluazioen nahiz une horretan oraindik egin gabe dauden likidazioari dagokionez.

Hitzarmena bertan behera gainerako arrazoiarengatik geratuko balitz, Unibertsitateak erabakiko du likidazioa nola egin ACPUAREKIN koordinatuta, eta, edonola ere, honakoak izango ditu kontuan: adostutako lan guztietatik zenbat egin diren eta horien baliagarritasuna, egin gabe zenbat geratu diren eta egindako ebaluazioak behar bezala egitean eragindako kalteak, eta kasu horretan dagokion konpentsazioetarako bidea emango dute. Ezingo da inolako kostu ekonomikorik sortu ACPUARENTZAT.

Eskatzaileek onartu egingo dute eskatzen duten ebaluazioaren emaitza eta ACPUARI ez diote inolako erantzukizunik leporatuko.

**SÉPTIMA.- TITULARIDAD DE LA
COMPETENCIA**

De conformidad con el artículo 15.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, citada anteriormente, la encomienda de gestión no supone cesión de titularidad de las competencias de las partes ni de los elementos sustantivos de su ejercicio.

Es responsabilidad de la UPV/EHU publicitar el procedimiento que de soporte a la actividad material objeto de la encomienda de gestión formalizada en este convenio, tanto en vía inicial como en la de recurso.

OCTAVA.- RESOLUCIÓN

El presente convenio se extinguirá, además de por el cumplimiento de su período de vigencia, por las siguientes causas:

- a) Por mutuo acuerdo de los firmantes de este convenio.
- b) Si se produjesen circunstancias que hicieran imposible o innecesaria la realización de las actuaciones encomendadas.
- c) Por el incumplimiento de las condiciones establecidas en este convenio.

En el supuesto de que se produzca una resolución anticipada del convenio, por la causa expresada en el párrafo a) de esta cláusula, ello dará lugar al acuerdo correspondiente respecto a su liquidación, para las evaluaciones ya realizadas y para las que aún estén pendientes en ese momento.

En caso de producirse la resolución anticipada por las demás causas, la universidad determinará la liquidación que corresponda, de manera coordinada con ACPUA, teniendo en cuenta, en todo caso, el cumplimiento de los trabajos efectivamente realizados en relación con el total acordado y su utilidad y los que estén pendientes, así como los posibles perjuicios ocasionados en el correcto desarrollo de las evaluaciones efectuadas, que darán lugar a las compensaciones que procedan, y sin que pueda generarse ningún coste económico para ACPUA.

Las personas solicitantes asumen el resultado de la evaluación que soliciten eximiendo con ello de cualquier responsabilidad a ACPUA.

Eta hitzarmen honen edukiarekin ados daudela adierazteko, aldeek bi aletan eta goian adierazitako tokian eta egunean sinatu dute.

UPV/EHUren izenean
Por UPV/EHU

Fernando Plazaola Muguruza
Vicerrector de Investigación
Ikerketaren Arloko Errektoreordea

Y, como prueba de conformidad con el contenido de este Convenio, las partes lo firman por duplicado en el lugar y fecha arriba indicados.

Por la ACPUA
ACPUAren izenean

Pilar Alegría Continente
Presidenta del Consejo Rector
Zuzendaritza Kontseiluaren lehendakaria